

EMAKUMEAK BERTSO ETA OLERKIGINTZAN

XIX. mendea

Rosario Artola

Sarrera

“Emakumeak bertso eta olerkigintzan” izenburuz datorren gai hau, idazlan laburrez osatutako sailtxo bat izatea nahi genuke. Gaur egunean, zorionez, emakumeak normaltasun osoz ari dira euskal literaturan esku hartzen; eta bertso eta olerkigintzan ere bai, jakina! Haien ekarpena euskal literaturara joria, aberatsa da, gizonezkoena den bezala. Ez dago zertan bereiztu batzuen eta besteena. Literatura da eta kito. Hori da gauzak ongi, bere onetik doazen seinale. Baina ikuspegi historikotik begiratzen badugu, beti ez dela hala izan ohartzen gara. Bizitzaren zenbait arlo gizonezkoenak izan dira soilik, edota gizonezkoenak nagusiki. Emakumeren bat haietan ikustea harrigarri eta salbuespentzat har zitekeen. Euskal literatura ere horrelako arloetarikoa izan da mende honen hasiera arte gutxienez. Begira, bestela Bizenta Mogelek bere *Ipui Onak* liburuaren sarreran dioena:

“Badakit, enzunaz beste gabe, neskatx gazte baten izena dagoala itxatsirik liburutxo onen aurrean, jardungo dutela siñuka ez gutxik, diotela beren artean, iñoren lumaz janzi nai duela bela

txikiak; au da, besten bearrak artu nai ditudala neretzat: ez dagokiola neskatxa bati bururik ausitzea liburugifien: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea”.

Bere buruari galdetzen dio, nola sinestaraziko ote dien pertsona batzuei berak. Esoporen hitz lauuko ipuinak irakurtzen zituela latinez eta askoz ere zailagoak ziren Fedroren eta Virgilioren hitz neurtuzko lanak. Beraz, garai zaharretan ezohizkoa zen, dirudienez, emakumeak luma harturik, idazten aritzea. Salbuespen bitxi eta miresgarri antzera ageri zaigu Bizenta Mogel, ez ipuinak idazten zituelako soilik, baita latinezko klasikoen lan bikainenak irakurtzen eta haietariko batzuk euskarara itzultzen zituelako ere. Begirada zorrotzez paper zaharrak eta agiriak arakatuz gero, ordea, badakit emakumeek izan dutela zerikusirik bertso-gintzan. Karmen Larrañagak, 1995eko martxoan agertutako *Bertsolari* aldizkarian gauza interesgarriak dakartza andre bertsolarien historiaz. XV. mendeko emakume bertsolariak aipatzen dizkigu, plazaz plaza eta herriz herri ibiltzen ziren profazadorak eta erostagileak alde batetik eta gudu-kantak eta eresiak kantatzen zituatenak bestetik. Batzuek eta besteek sortutako kantak bat-batekoak ziren. Garai zahar hauetan badirudi andrazkoak direla jendaurrean kantatzen zutenak eta ez gizonezkoak. Dena dela, horren guztiorren lekukotasuna ikertzaileentzat agiri zaharretan gorderik gelditu bada ere, herri xehearen oroitzapenean lauso arteko zertxobait baizik ez da. Aipatutako *Bertsolari* aldizkariaren ale horrek baditu beste zertzelada jakingarri batzuk ere. Baina gu, azpitu-tuluan jarri dugun harira itzuliko gara:

Hari-mutur honi tiraka, eta Erdi Arokoak eta ezagunago zaigun Bizenta Mogel alde batera utzirik, Rosario Artolarekin aurkitzen gara. Emakume honek, bere xumetasunean, merezi du aldizkari zaharren hauts arteatik askatu eta egungo irakurleei ezagutzera ematea.

Emakumeen bertso eta olerkigintza, jarduera normal bezala, XX. mendean eta batez ere gerra ostean garatzen hasten dela

dirudi... Hala ere XIX. mendean badira literatura landu zuten banaka batzuk. Aldizkariet gainbegirada bat eginez gero, XIX. mendean bertso banakak egindako emakume bat edo beste agertzen dira. Baina normaltasunez aldizkarietan idazten lehenengoa izatearen ohorea Rosario Artolari dagokio. Jarduera horretan aitzindari izan zela esan behar. XIX. mendearen azkenaldiko eta XX.aren hasierako hainbat aldizkaritan argitaratu zituen bere lanak.

1. Literaturan dagokion lekua

Euskal literaturaren historiako liburuetan ia ez da agertzen. L. Mitxelena eta L. Villasante ez dute aipatzen, ezta Elhuyarren Hiztegi Entziklopedikoak ere. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*-n (Diccionario III, 87) aipamen labur bat dator haren argazki eta guzti... Jon Bilbao-k, ordea, (Eusko bibliografía I, 344.orr.) haren lanari dagokion zerrenda bibliografiko zabala dakar (39 olerki-lanen izenburuak)...

Santi Onaindiak pixka bat luzeago dakar emakume honen jarduera:

a) *Milla Euskal-Olerki Eder* (358-359); idazleari buruz lau lerro idatzi ondoren, haren bi olerki jartzen ditu.

b) Bere *Euskal Literatura*-n (III, 226-228) pixka bat argiago eta zabalago dakar haren berri.

Karmel aldizkaria izango da lehen aldiz emakume hau olerkari gisa plazaratuko duena, haren bertso-lanen bibliografia nahiko osatua emanez (50 bat izenburu olerki-lanetan)...

Haren jarduera literarioa ez da handia, ezta kalitatez goimailakoa ere. Hala ere, aipatzea merezi zuela uste dugu, garai hartako aldizkarietan, jarduera poetiko-literarioa normalizatu zuen lehenengo emakumea delako. Horregatik da aipagarri. Jakina! Bizenta Mogelen kasua desberdina da, lehenxeago adierazi dugunez.



*Ramon Artola,
Rosarioren aita.*

2. Bizitzako zertzeladak eta kulturazko, herriko eta familiako giroa

Berari buruz berri gutxi dago argitaraturik. Dena dela, haren familian badira liburuak argitaratu dituzten beste idazle batzuk ere. Haren aitak, Ramon Artolak, (Tolosa, 1831 - Donostia, 1906) 400 bat bertso-lan argitaratu zituen hainbat aldizkaritan. Honen seme eta Rosarioren neba Jose Artolak (Donostia, 1864-1929) 360 olerki inguru argitaratu zituen aldizkarietan... Alabak ere, etxeko olerki-joerari eutsi zion, emakumeen jarduera poetikoari hasiera indartsua emanez aldizkarietan. 50 bat olerki-lan ditu. Ez dugu aurkitu inon haren jaiotza eta heriotzari buruzko daturik.

XIX. mendearen amaierako kultur giroa Euskal Herrian eta Donostian

XIX. mendeko krisi sozio-politiko-kulturala gerta zedin hainbat eragilek egin zuten bat, horien artean, hain joko erabakigarria izan zuten karlista gerrateek. Gizarteko ondorio kaltegarrien artean, euskarari zegokionean etsipena, ezkortasuna, bururik jaso ezina izan ziren, eta beraz, atzerapena. Baina apurka-apurka euskal abertzaletasuna ere garatuz zihoan. Aurreko forma politikoak baztertuz, abertzale-izpirituaren adierazpen garbiagoa ari zen sortzen. Euskal nazioaren aldeko ekintza hizkuntzaren aldekoarekin loturik zegoen. Politika eta aberriko hizkuntzaren aldeko sentimendua bateratsu garatuz zihoazen XIX. mendearen azkenean eta XX.aren hasieran; Rosario Artolak bere bertso-lanak burutu zituen garaian, hain zuzen ere.

Abertzaletasunaren eta batez ere euskararen pizkundeak, alderdi on batzuk izan zituen: talde antolatuak euren kultur ekintzekin, zientzilariak, herri-sentimendu honen alderdi nagusi bat Elizak elkartzen zuen eta elizgizon jakintsuek euskal kultura eta hizkuntzaren garapenaren alde ari ziren jo eta ke lanean, hainbat kultur mugimenduren, esaterako ikastolen, gidari ziren politikariak etab.

Mugimendu politiko-kultural honek goi-mailako pertsonak zituen eragile, esaterako, Arturo Kanpion (1854-1937), Sabino Arana-Gori (1865-1903), R.M. Azkue (1864-1951), Julio Urkijo (1864-1950), etab. Bultzada berri honen eraginez, aldizkari ugari sortzen dira, batzuek urteen joan-etorrian historia luze eta garrantzitsua izanik. Besteak beste, hauek aipatuko genituzke: *Revista Euskara* (1878), *Euskal Erria* (1880), *Eskualduna* (1887), *Euskaldun* (1196), *Euskaltzale* (1897), *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907), *Euskal Esnalea* (1908), *Euzko Deya* (1916), *Jesus'en Biotzaren Deya* (1917), etab.

Rosario Artola Euskal Herriko eta bereziki Donostiako kultur bultzada honen eraginpean bizi izan zen, eta olerkia lantzen zuen

etxeko giro hartan, berak ere Donostiako aldizkari batzuetan idazten zuen, esate baterako ondorengo hauetan: *Baserritarra*, *La Unión Vascongada* eta batez ere *Euskal Erria*-n.

3. Aldizkarietan burutu zuen lana

Kopuruz 50 bat lan dira. Baina hauetariko olerki batzuk aldizkari bat baino gehiagotan agertzen dira.

Haren bertso-lanak hainbat aldizkaritan argitaraturik aurkitzen ditugu, zehazki esanda hamabi aldizkaritan, bai bizi zen bitartean eta bai hura hil ondoren ere; baina olerki batzuk errepikaturik agertzen direla esan behar. Bere gogoko aldizkaria, ordea, *Euskal Erria* izan zuen. Hementxe argitaratu zituen 46 olerki (aldizkari honetan idazten zituzten euren bertso-lanak haren aita Ramonek eta neba Josek ere); gainerako aldizkarietan gutxi agertzen da. *Unión Vascongada*-n Rosarioren lau bertso-lan datoz, *Baserritarra*-n bi, eta bana



Jose Artola, Rosarioren neba.

ondorengo hauetan: *Aranzazu, Basconia, Bertsolariya, Euskal Herria, Euskalduna, Euskaria, Euzko Deya, Ibaizabal, Zeutzat.*

Haren lehenengo olerkia (hobeki esan, lehenengo bertso-lana) *Euskal Herria* aldizkarian dator, 1889an ("nere gitarchoari"); harrezkero bertso-lanak idazteari eta argitaratzeari ekingo dio 1916ra arte. Urte horretan eta aldizkari berean "Ill zera! Bañan oso goguan" izeneko lana argitaratzen du. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*-k dioenez, haren azken olerkia 1918koa da, baina gogoan izan behar da 1917an eta 1918an argitaratutako olerkia eta 1907, 1912, 1915 eta 1916an argitaratutakoa, dirudienez, olerki bera dela, "Mayatzeko loreak Birjiñari" du izenburua.

Darabiltzan gaiak

Bere garaiko gainerako idazle gehinek darabiltzaten antzeko gaiak aurkitzen ditugu honengan ere; hala nola:

- erlijio-gaia: Ama Birjinari buruzkoa bere misterio, adokazio edo santutegietan (Arantzazu, Guadalupe), Jainkoari buruzkoa (Jauna)...

- familiari dagokion gaia: aitona, anaia...

- izadiaren gaia: baserri-giroa, txoriak, saguak (ipuinak, astoa eta otsoa etab.), azeria, udaberria...

- zenbait pertsonari eskainitako bertsoak: Jose Zapirain, Migel Salaberria, Antonio (Arzak?), Franzisko Lopen Alen, Eugenio Gabilondo, Serafin Baroja...

- sentipen edo barruko gaiak: nahigabeak eta atseginak, gitarra, lagunak, euskara...

Bibliografia:

ARTOLA ELIZECHE, ROSARIO, *Aitona-illobachoaren jolascho bat*, *Euskal Erria* 35 (1896) 401.

- ARTOLA, Rosario, *Ama Birjiña Guadalupekoari*, Ibaizabal 2 (1903,96.zk.) 1-2.
- *Anayari ongi-etorriya*, Euskal Erria 24 (1891) 375.
 - *Aranzazuko Ama Birjiñari*, Euskal Erria 47 (1902) 310-311. / Aranzazu (1975) 241a. / Ibaizabal 1 (1902,44.zk.) 1-2.
 - *Asto alperra*, Euskal Erria 26 (1892) 479-480. / Unión 2 (1892,287.zk.) 2.
 - *Asto ta otsoa*, Euskal Erria 33 (1895) 363.
 - *Baserriyan*, Euskal Erria 31 (1894) 442. / Unión 4 (1894,1163.zk.) 2.
 - *Bi choriyak*, Unión 2 (1892,478.zk.) 1.
 - *Bi choriyak. (Ipuiya)*, Euskal Erria 28 (1893) 185-186.
 - *Bi saguak. (Ipuiya)*, Euskal Erria 28 (1893) 213-214.
 - *Birjiña Amari*, Euskal Erria 26 (1892) 28-29. / Bertsolariya 1 (1932,51.zk.) 312. / Euzko Deya-A 3 (1941,84.zk.) 2.
 - *Birjiñari loreak*, Euskal Erria 50 (1904) 407.
 - *Birjiñari Mayatzeko loreak*, Euskal Erria 68 (1913) 408.
 - *Chori eriya*, Euskal Erria 28 (1893) 277-278.
 - *Errikosheme azkarra-ri*, Euskal Erria 70 (1914) 491.
 - *Exeriyak*, Euskal Erria 41 (1899) 406-407.
 - *Farra eman ziran*, Euskal Erria 28 (1893) 326-327.
 - *Ill zera! bañan oso goguan*, Euskal Erria 75 (1916) 209.
 - *Inozentziya*, Euskal Erria 45 (1901) 423.
 - *Jauna-ren onduan*, Euskal Erria 66 (1912) 122.
 - *Jose Zapirain-i. Oroimen bat*, Euskal Erria 71 (1914) 215.
 - *Katu zarra ta gaztia. (Ipuiya)*, Euskal Erria 28 (1893) 229-230.
 - *Kontzeziyoko Birjiñari*, Euskal Erria 67 (1912) 490.

- ARTOLA, ROSARIO, *Lore bi. Nere lagunari*, Baskonia 6 (1899, 214.zk.) 412.
- *Loriak. Birjina Amari*, Euskal Erria 44 (1901) 576.
 - *Mayatzeko loreak Birjiñari*, Baserritarra 4 (1907,68.zk.) 4. / Euskal Erria 74 (1916) 399. / Euskal Erria 66 (1912) 414. / Euskal Erria 72 (1915) 426. / Euskal Erria 76 (1917) 397. / Euskal Erria 78 (1918) 397.
 - *Migel Salaberria'ri. Oroimen bat*, Euskal Erria 72 (1915) 409.
 - *Naigabea eta atsegina*, Euskal Erria 29 (1893) 391.
 - *Nere aita maite biyotzeko-ari*, Euskal Erria 63 (1910) 166.
 - *Nere anai Franzisko-ri bere egunean*, Euskal Erria 21 (1889) 444.
 - *Nere gitarchoari*, Euskal Erria 20 (1889) 215. / Euskal Erria 5 (1896,17.zk.) 4. / Zeutzat (1957,23.zk.) [4].
 - *Nere lagunari bere egunean*, Euskal Erria 28 (1893) 295.
 - *On Antonio-ri oroimena*, Euskal Erria 51 (1904) 371.
 - *On Franzizko Lopen Alen zana-ri*, Euskal Erria 63 (1910) 26.
 - *Oroigarri bat*, Euskal Erria 63 (1910) 77.
 - *Oroimendua. [Eugenio Gabilondo]*, Euskal Erria 69 (1913) 3555.
 - *Oroimengarriya*, Euskal Erria 47 (1902) 59-60.
 - *Raimundo Sarriegi zanari*, Euskal Erria 68 (1913) 400.
 - *Serafin Baroja-ri. Zer naigabea!*, Euskal Erria 67 (1912) 66.
 - *Uda berriya*, Unión 4 (1894,944.zk.) 3. / Euskal Erria 30 (1894) 346.
 - *Ume zurtza*, Euskal Erria 51 (1904) 239-240. / Euskalduna 9 (1904,361.zk.) 6.
 - *Ume zurtza. Euskera det maite*, Baserritarra 6 (1909,130.zk.) 2. / Euskaria 4 (1909,167.zk.) 1.

ARTOLA, Rosario, *Urte bete!* [Serafin Baroja zanari], Euskal Erria 69 (1913) 67.

- *Zerubetako Erregina Ama Birjina Guadalupekoari*, Euskal Erria 49 (1903) 322-323.

- *Zoriona Ama Birjinari*, Euskal Erria 71 (1914) 129.

- *Zuri*, Euskal Erria 32 (1895) 103.

4. Nola idazten zuen

Olerkiei gainbegirada bat egitea aski da, haren estiloaz jabetzeko. Idazkera erraz-erraza du. Berez-berezko jario garbian den iturritxo baten antzera. Ideia eta forma dotoreak bilatzen jardun gabe, bihotz-ikututxo batez, paperera ekarriak dirudite. Rosariok hitz egiten zuen eran idazten zuela esango genuke, bakarrik zortziko txikiaren erritmo pinpirina ezartzen diela bere bertsoei. Pinpilinpauza bezala axial-axaletik hegan dabilenaren grazia dute. Ez bilatu hor bizitzako trantze latzen adierazpen ozpindurik, ez pentsamenduen sakontasunik, ez izpirituaren kutxa gordetik ateratako bitxirik. Xumea, egunerokoa, betikoa kantatzen da bertso hauetan... Baina ez dira liluragabeak eta hotzak. Nahiko politak dira; gauza txikitxo, xume eta berezkoen kili-kili gozoa ariman egiten dutenak. Hona hemen, adibidez, "Nere gitartxoari" izeneko haren lehenengo olerkiaren bertso pare bat:

Nik gitarcho bat baidet
Maite eta lagun,
Au joaz pasatzen det
Denbora txit legun,
Nola denok grazi bat
Zerbaitetan degun,
Berarekin pensatzen
Nago gau ta egun.

Denbora pasatzeko
Gauz-oberik ezta,
Onekin non-nai jartzen
Det nik naiko festa,
Bakarrikan bera da
Noranaiko orkesta,
Au aitzez iñortxore
Aspertutzen ezta.

Ipuinak edo istoriotxoak bertsotan kontatzea du gogoko. Hauetariko batzuk alegi antzera moldatuak dira, beren irakaspén eta guzti. Horrelakoa da "Katu zarra ta gaztia" izenekoa, Donostiako lore-jokoetan ohorezko aipamena merezi izan zuena. Joera hau, berez alegiak ez direnetan ere nabari da, esaterako, "Farra eman ziran" izenburua duenekoan. Hemen, zapatak konpontzera eraman zizkion zapatariaren istorioa kontatzen du. Hark hitzez esandakoa ez zuen egitez bete; horregatik, honelako irakaspéna ezartzen dio amaieran:

"Besteri naidubenak
falta erakutsi
nor berak lenbiziko
bearko du utzi".

Olerki batzuetan egoki bideratzen ditu bere pentsamentuak lehen bertsoetan barrena, baina gero, haria erdi etenda-edo, behera egiten du, kontaketa ongi biribildu gabe. Olerki saritua da, "Aitona-illobatxoaren jolastxo bat" izenburuz datorrena. Kontatzailea eta bien arteko elkarriketaz osatzen da.

Irudi eta metaforaz ia batere ez da baliatzen; horregatik, olerki-olerkiak barik bertso-lanak direla esan dezakegu. Hizkuntza ez da jantzia eta dotorea; horren ondorioz, emaitza apalagoa gertatzen da. Haren berezko etorriak gozotasuna galtzen du hain ongi josten ez dituen esaldi batzuetan. Hona hemen adibide gisa olerkitxo honetan azpimarraturiko bi lerroak:

Zuri

Zure begiyak dira
izar modukoak,
iya ezitrudite
gauza mundukoak,
ezin izan geyago
nere gogokoak
berinkatu ditzala
gure Jaungoikoak.

"Ume zurtza" izenez zortziko handian egindako bertsoak politak dira; sentimendu samina eta aldi berean gozoa darie. Euskara aldetik, ordea, pobreak dira hauek ere. Begira, bertso honetan nola hitz egiten dien zuhaitz-adarrean kantari ari diren txoriei:

"Kanta zazute, kanta gaxuak,
ez dezute zubek penik,
ezdakizute zeñen tristia
dan gelditzia bakarrik;
aita ta amarengana juatian
antxen kantatuko det nik,
bada ez baita poza ta pena
bere azkena ezduenik".

Zer esan genezake, labur bilduz, haren olerkigintzaz? Zehazki hitz egitekotan, bertsogintza esan beharko genuke. Goian adierazi dugunez, badu bere xarma bertso batzuetan. Badaki bertsoz bere kontakizunak moldatzen, baita sentimendu samurrak adierazten ere. Gehien batean zortziko txikia erabiliz, erritmo bizi-bizia lortzen du. Hala ere, errima pobreak darabiltza. Batzuetan bertso berean errimak aldatzen ditu, komenientziaren arabera. Horrelakoetan, zortzi lerroko ahapaldietan tolestu beharrean ideiak, unitate handiagoetara jotzen du. Jakina, haren bertsogintza ez da goi-mailakoa; darabiltzan gaiak eta erabiltzeko modua ere gaurko ikuspegiz begiraturik, ez dira interesgarriak, baina garai hartako beste batzuek ere joera berdintsuak agertzen zituzten, salbuespenak salbuespen. Bere garaiaren kokatuz eta hizkuntzaren erabilerari dagozkion gauzatxo batzuk barkatuz gero, polita, gozoa, atsegina da Rosario Artolaren lana.

Nere gitarixoari

Nik gitartxo bat baidet
maite eta lagun,
au joaz pasatzen det
denbora txit legun;
nola denok grazi bat
zerbaitetan degun
berarekin pensatzen
nago gau ta egun.

Denbora pasatzeko
gauz-oberik ezta,
onekin non-nai jartzen
det nik naiko festa;
bakarrikan bera da
noranaiko orkesta,
au aitez inortxore
aspertutzen ezta.

Triste nagoenian
bera det pozgarri,
zenbait bidetan ere
auxen det igarri;
onekiñ atsegiña
datorkit txit sarri,
soñua joaz, eta
gañera kantari.

Gitarra jotzez ez naiz
beñere aspertzen,
berarekin biotza
oso zait zabaltzen,
eta burua ere
txit asko argitzen,
onekin det zorion
guztiya arkitzen.

Euskal Erria 20 (1889) 215.

Katu zarra ta gaztia (Ipuiya)

Etxe batian katu
 zar aundi bat zuten,
 sekulan etzubena
 lanikan egiten;
 alperrikan bezela
 zuten irukitzen,
 zergatik bigaltziaz
 ziran errukitzen;
 denborarekin zuten
 gazte bat ekarri,
 bañan au etxitzayon
 gustatu zarrari;
 eziñ zuben gaztien
 gauzikan eraman,
 istillubak askotan
 izaten ziran an;
 nola tranpiyan geigo
 beti baizan zarra,
 noiz nai gañian ziyon
 jartzen atzaparra;
 gazte onak askotan
 esaten baiziyon,
 ea onek berari
 zer gaitz egin ziyon;
 obe zutela biyak
 pakian an bizi,

naiz ura etxekua
 izaki lenbizi;
 orduban ta geyago
 zuben porrokatzen,
 eta gaxua penaz
 beterikan uzten;
 egun batian orla
 zebiltzala biyak,
 ikusi baizituben
 beren nagusiyak;
 zarra ostikoz azkar
 jo ta botarikan,
 etzuben geigo sartzen
 an izan lanikan.

 Begiyetara digu
 onek erakusten,
 gaitz egiten dubena
 nola dan azaltzen;
 inor penaturikan
 badu irukitzen,
 gero arrentzat inor
 eztala errukitzen.

Euskal Erria 28 (1893)
 229-230.

Txori eriya

Arbol adar gañean
 gogoki kantari,
 txori guztiz eder bat
 antxen baitzan ari;
 nunbaitetik arriya
 zitzayon etorri,
 arrek jorik gaxua
 gelditu zan eri,
 inguruban zebiltzan
 bere lagunari,
 deitzen ziyen aguro
 zitezen etorri;
 esanaz mintsu nago
 eta guztiz larri,
 bear nazute zerbait
 onera ekarri;
 farra baizitzayoten
 etorri danari,
 onela eranzuna
 emanik berari:

guk ere miñak beti
 ditugu ugari,
 eta zu pasatutzen
 ere ortxe ari;
 bakarrik utzi zuten
 oso penagarri,
 bazter batera baizan
 betiko erori.

 Onela gertazenda
 geronen artean,
 lagun asko ditugu
 ondo geranean;
 bañan oranchen gaitza
 datorrigunean,
 iñor ere azaltzen
 etzaigu aurrean.

Euskal Erria 28 (1893)
 277-278.

Nere lagunari bere egunean

Txoriyak zerbait ariyazitzen
 ziraten beren kantetan,
 esnatu eta iñola uzten
 etziraten neri lotan;
 alako batez oroiturikan
 gaudela egun on ontan
 zer atsegiña nik biyotzaren
 barrenan sentitudetan.
 Zure eguna izanikanen

nere lagun txit maitia,
 desiatzendet egun ontxobat
 Jaunak zuri ematia;
 denborarekin Berarengana
 zeruetara juatia,
 aingeruchoaz inguraturik
 edertasunez betia.

Euskal Erria 28 (1893) 295

Farra eman ziran

Egun batian nizkan
 zapatari bati,
 eraman kompontzera
 zapata pare bi,
 esan ziran: bigarko
 ditut konponduko,
 aldetan onduena
 ditut nik jarriko;
 ala esan bezela
 joanik beragana,
 egiña baizekarren
 ordurako lana;
 neri ematerako
 garbitzen zan asi;
 ontzi batian zekan
 lustre zar ta guzi;
 esan ziran: alperrik
 oñetako danak
 galdutzen ditu chistu
 orren maiz emanak,
 etzayo eman bear
 txisturik iñola,

eta obe baidezu
 beti egiñ ala;
 izketan ai zala
 alako batean,
 nun txistuba botadu
 lustrien tartean.
 orduan esan niyon
 farra egiñikan:
 aibeza bedorrenak
 ez aldu gaitzikan?
 Oso lotsaturikan
 bertan zan gelditu,
 arpegiya zitzayon
 aguro gorritu.

 Besteri naidubenak
 falta erakutsi
 nor berak lenbiziko
 bearko du utzi.

Euskal Erria 28 (1893)
 326-327

Naigabea eta atsegiña

Ama gaxo bat semetxoari
 begira dago negarrez,
 ikusirikan gaizki dagola
 gaitz aundiyaren indarrez;
 igarririkan semeak diyo
 esaten bere amari:
 zergatik penaz beterik dago
 begiraturikan neri?
 Laister uste det, bai, nere gaitzak
 dubela bere azkena,
 bañan batere ez orrengatik
 amacho iruki pena;
 orain esango diyot sentitzen
 dubena nere biyotzak,
 eta agiyan poztuko baidu
 nere azken eriyotzak;
 bada berri bat nik izandu det
 aingerutxoarengandik,
 eta bedorri ezertxo ere
 esan eztiyot oraindik;

esan dirate sarri deituko
 diratela or goitikan,
 eta betiko ondo izango
 naizela ni ordutikan;
 nik lagunduko diyot zerutik
 semecho baten moduban,
 ez uste izan oso bakarrik
 gelditzen dala munduban;
 ama semeak laztandurikan
 biyotz bi ziran bat egiñ,
 eta orduban aingerutxoak
 gora ziyoten ots egiñ.

.....
 Zer edertasun aundiyagua
 izango da amarentzat,
 bere aurtxo beti betiko
 izatea Jaunarentzat!

Euskal erria 29 (1893) 392

Loriak. Birjiña Amari

Uda berriyan lore gozoak
 ditu baratzak ematen,
 andik bildurik aldarietan
 Zuri zaizkitzu eskeintzen;
 umildadezko gauza txikiyak
 pozez dituzu jasotzen
 ta Zure doai onak dirade
 berarengana banatzen.

Nik ere nairik zerubetara
 zerbait bigaldu, Birjiña,
 eskeintzen dizut lore xorta bat
 biyotz nerlan egiña;
 ain gutxi naiz ta badakit bada
 eztala Zuretzat diña
 "magaltxo ortan jaso ditzazu
 zerubetako erregiña".

Euskal Erria 44 (1901) 576.

Ume zurtza

Guraso onak ill zizaizkiran
bakarrikan naiz bizitzen,
nere biyotza oso tristia
ezertxok ez du alaitzen;
gora bagira ordu osoak
askotan ditut pasatzen,
oroiturikan zeñen ederki
egongo diran gozatzen.

Ez det aditzen amaren kanta
eta iz gozo legunik,
ez det sentitzen aren arnasa
musu ederrak emanik;
argatik daude nere begiyak
bi erriyotxo egiñik,
eta biyotza penaz betea
kentzen etzayola miñik.

Soñuak ez dit pozik ematen
penaz bete bai geyago,
nere ondotik juango balira
uraxe nuke nayago;
munduko gauzak iriritutzen
zaizkit orain zoruago;
oi zeru eder garbiyortara
noiz ote naiz bada juango?

Erriyan baño nayago baidet,
baserriyan naiz bizitzen,
txoriyak dauden arbol azpiyan
askotan naiz exeritzen;
iru edo lau nere ondora

beti dira inguratzen,
badirudite errukiturik
daudela neri laguntzen.

Badirudite bere kantakin
nai nautela ni alaitu,
bañan tristia nere barrena
naiz gaxuak ala aitu;
albanezake nere negarrak
txori ayeri kontatu,
penaturikan ingolizake
bertatikanen mututu.

Kanta zazute, kanta gaxuak,
ez dezute zubek penik,
ez dakizute zeñen tristia
den galditzia bakarrik;
aita ta amarengana juatian
antxen kantatuko det nik,
bada ez baita poza tapena
bere azkena es duenik.

Orduan dira bai legortuko
nere negar txit samiñak,
asko merezi zuten guraso
onarengatik egiñak,
egun batian elkartzian
neretzat zer atsegiñak!
an sendatuko dira betiko
biyotz tristiaren miñak.

Euskal Erría 51 (1904)
239-240

Aitona-illobatxoaren jolastxo bat

Aitona bat ari da
 zelayan lanian,
 illobatxoa dauka
 bere aldamenian;
 eguna pasarikan
 txit neke aundiyan
 gaba dator ta dira
 etxera abiyen.
 Biyak dijuazela
 kontuak kontatzen
 ontan kanpai soñua
 baitute aditzen,
 aitona lendabizi
 da belaunikatzen
 eta segiran dute
 biyak errezatzen.
 Aurtxoak galdetutzen
 diyo aitonari,
 - zergatik errezatzen
 emen gera ari?
 esanbeza aitona
 nainuke nik jakin!
 - esango dizut bada
 illobatxo Juakin.
 Kanpai ori nola dan
 gabaren aurrena,
 Jaunari erregutu
 bear degu dena;

zeren pasa dezagun
 etxean gau ona,
 ikusirik datorren
 urrengo eguna.

- Aitona, aingeruak
 ikuste algaituzte?
 gure erregutxuak
 aituko dituzte?

- bai maitea, begira
 daude or goitikan,
 Jaunari kontatzeko
 gu biyagatikan! -

Aurra gora begira
 ez baita aspertzen,
 aitonari malkoak
 zaizka ixuritzen!

Aurtxoak laztandurik
 besuan du artzen
 bi biyotz eder ayek
 dirade batutzen!

.....
 Aingerutxoa da txikiya ta
 aingerutxoa da zarra,
 orlakoentzat beti betiko
 dago zerua zabala.

Euskal Erria 35 (1896)
 401.

Luis Baraiazarra - Julen Urkiza